

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak ondo funtziona dezan zenbait jarduera burutu behar ditugu. Hiru jarduera nagusi izango ditugu:

- Ekoizpena: Proiektua aurrera eramateko ekoizpenaren kontrola ezinbestekoa izango da, konpostontzi nahiko behar izango ditugulako adostutako eskaerak bete ahal izateko.

Konpostontziaren funtzionamendua horrelako da; ontziaren goiko atetxoa ireki eta bertan agoen konpartimentuan sartu behar da janari organikoa, hau bete arte. Beteta dagoenean, "on" botoira sakatu behar zaio (motorra ere martxan jartzeko) eta segituan jarriko da martxan. Barruan dagoen birrintzailea biraka hasiko da janaria birrinduz. Prozesua hobetzeko, motorra azpian dagoen tangako ura berotuko da eta tutuen bidez janaria konpartimentua berotuko du. Beheko tiradera ireki eta emaitza, kalitate oso oneko konposta izango da.

- "Konpostontzi" apurtuen konponketa: gure produktua erosi duten bezeroen artean harekin arazoak dituztenen kexataz arduratuko gara. Gure langileek alait arinen konponduko dituzte, azkartasunak garrantzi handia du.
- Web orrialdeko eta sareko jarduerak: produktua bultzatzeko, sare sozialak martxan jarriko ditugu baita geure web-orria ere.

Arestian aipatu bezala, ekoizpenak berebiziko garrantzia du, ezin dugulako gure produktua saldu fabrikatuta ez badago. Hortaz, ekoizpenari lehentasuna emango diogu beste jardueren gainetik.

